



Gipuzkoako Foru Aldundia

Diputatu Nagusia

Berdintasun Zuzendaritza Nagusia

Dirección General de Igualdad

GIPUZKOAKO BERDINTASUNEKO TEKNIKARIEN SAREA



GIPUZKOAKO BERDINTASUNENKO TEKNIKARIEN SAREA

1. TESTUINGURUA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun Zuzendaritzaren funtzioetako bat da Lurraldean berdintasunaren aldeko tokiko politikak sustatzea. Esparru horretan, *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Foru Planak* bere helburu espezifikoaren artean hau jasotzen du: “Gipuzkoako berdintasuneko teknikarien sarea sortu eta abian jartzea, Lurraldeko tokiko administrazioen artean hausnartzeko, ikasteko, trukea egiteko eta estrategiaren plangintza egiteko espazio bezala, EAEn dagoeneko dauden tokiko sareen osagarria izan dadin”.

Helburu horrek Lurraldeko berdintasuneko teknikarien eskaera bati ere erantzuten dio. Izan ere, une jakin batzuetan adierazi baitzuten Lurraldean talde-laneko gune bat sortzeko beharra zegoela.

Hori dela eta, 2012. urtearen bukaeran, gune hori abian jarri zen, udaletako berdintasuneko teknikariekin sei lan mintegi antolatu ondoren *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Foru Plana* prestatzeko lanen barruan.

Interesak eta aukerak identifikatzeko lehenengo fasearen ondoren, 2014ko ekainera arte egin beharreko lana planifikatu zen, lan hori hiru lan-ildo hauen inguruan antolatuz:

- Genero-mainstreaminga
- Jabekuntza eta partaidetza sozio-politikoak
- Indarkeria matxistaren aurkako borroka

2. HELBURUAK

Hauek dira berdintasuneko tokiko teknikarien talde-laneko gunearen helburuak:

- Indartzea berdintasuneko teknikariek udaletan duten posizioa, beste udalerrri batzuekin sarean lana eginez.
- Sendotzea berdintasuneko teknikarien eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko elkarrikeria.
- Hobetzea berdintasuneko teknikarien gaitasuna eta garatzea berdintasunaren alorrean udaletan egin beharreko lana erraztuko duten tresna praktikoak.
- Gune egonkor bat izatea elkarrekin gogoeta egiteko, esperientziak trukatzeko eta esku-hartzeak koordinatzeko Gipuzkoako udalerrietan.
- Sinergiak sortzea beste gune batzuetan egindako lanarekin; hala nola, “Berdinsarea” *Berdintasunaren aldeko eta indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sarean* egindakoarekin edo *Berdinbidean Gipuzkoa* programan egindakoarekin (*Berdinbidean* Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun Zuzendaritzak jarri zuen abian, berdintasuneko teknikaririk ez duten Gipuzkoako udalerrri txikiengan berdintasunerako ekimenak aholkatzeko eta dinamizatzeko).



3. METODOLOGIA

Lana hainbat guneren inguruan egituratu da. Alde batetik, osoko bilkurak egiten dira Gipuzkoako berdintasuneko teknikariek eta, bertan, izaera komuneko eta interes orokorreko gaiak lantzen dira.

Halaber, abian jarri dira gai berezien inguruko hiru lantalde, eta bakoitza bere lan plana garatzen ari da.

Azkenik, talde gidari bat dago; talde hori osatzen dute lantalde bakoitzaren ordezkari batek eta Berdintasun Zuzendaritzako pertsona batek, Sarearen lanean laguntzen duen aholkularitza teknikoarekin batera. Talde gidari horren funtzioa da hiru lantalde horien jarraipena egitea, loturak ezarriz beraien artean eta identifikatuz sarearen osoko bilkuretan planteatu beharreko gai garrantzitsuak.

Hauetako gaur egun abian diren lantaldeak:

Genero-mainstreamingari buruzko taldea

Talde hau aritu da, batez ere, genero-mainstreamingeko estrategia ezartzeko eredu bat prestatzen; eredu hori aplikagarria izango da Lurraldeko udalerrietan.

Lan fase hau bukatzen denerako, 2014ko ekainean, dokumentu bat prestatuta izatea aurreikusi da, erreferentzia izango dena Gipuzkoako gainerako udalerrientzat eta beste lurraldeetako udalerrientzat.

Dokumentu horretan jasoko da, alde batetik, mainstreamingaren esparru kontzeptuala eta, bestetik, gogoeta bat, estrategia ezartzeko bete behar diren aurretiazko baldintzei buruz eta baldintza horiek sortzeko moduari buruz. Halaber, genero-mainstreamingaren estrategia garatzeko udal bakoitzean landu behar diren edukiak jasoko dira, eta baita lanketa horretan lagunduko duten tresnak ere; tresna horiek talde honek egindako lanaren esparruan sortu dira.

Udal hauetako berdintasun teknikariek parte hartu dute bertan:

Azpeitia	Errenteria	Oñati	Tolosa
Bergara	Hernani	Ordizia	Zarautz
Donostia	Irun	Pasaia	Zumaia

Indarkeria matxistari buruzko taldea

Indarkeria-taldearen lana hausnarketako hiru esparru hauen inguruan antolatu da:

- Azterketa eta eztabaida indarkeria matxistaren aurkako borrokarako politiken esparruan erabilitako terminologiaren inguruan, helburua izanik aurrera egitea lurraldea harmonizatzen, errealitatea deskribatzen, informazioa biltzen eta esku-hartzeak bideratzen.
- Kontrastea eta hausnarketa indarkeria matxistaren arretako foru zerbitzuei buruz Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako diagnostikotik ateratako ondorioen inguruan. Helburuak izan dira, batetik, aurrera egin ahal izatea, indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen xedera, jabeakuntzako esku-hartze eredu baterantz, eta, bestetik, hobeto koordinatzea nola udal mailako eta foru mailako esku-hartzeak, hala gizarte zerbitzuetako eta berdintasun alorretako udal areen arteko loturak.
- Indarkeria matxistaren problematika jai eta aisialdi guneen testuinguruan.



Udal hauetako berdintasun teknikariek parte hartu dute bertan:

Arrasate	Eibar
Azkoitia	Oñati
Azpeitia	Ordizia
Bergara	Pasaia
Donostia	Usurbil
	Urola-Garaia Mankomunitatea

Jabekuntzari eta partaidetza sozio-politikoari buruzko taldea

Talde honetan, lana hausnarketa-lerro hauen inguruan antolatu da:

- Aztertzea emakumeen jabekuntza prozesua eta herritarren partaidetzako eredua, genero ikuspegitik.
- Berrikustea berdintasuneko teknikariek beren udalerrietan aurrera eramandako lan prozesuen artean jabekuntzaren ikuspuntutik arrakasta handiena izan dutenak, arrakastaren gakoak zein diren identifikatzeko eta jarraipen eta hobekuntzako jarraibideak ateratzeko.
- Hausnartzea eta eztabaidatzea pentsamendu feministak jabekuntza gaietan izan duen bilakaera teoriko eta praktikoaren inguruan, jabekuntza estrategiaren eta herritarren partaidetzako mekanismoen arteko loturak aztertuz. Izan ere, 2014-2015 ikasturteari begira, hasierako asmoa izango litzateke egindako hausnarketak uztartzea Lurraldean abian jarri diren herritarren partaidetzako esperientzia jakin batzuekin.

Udal hauetako berdintasun teknikariek parte hartu dute bertan:

Arrasate	Eibar
Azkoitia	Hernani
Beasain	Pasaia
Donostia	Urola-Garaia Mankomunitatea

4. PROZESUAREN BALORAZIOA

Lanerako gune kolektibo bat sortzeak hurbiltze bat ekarri du berdintasuneko tokiko teknikarien artean eta horien eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean. Horri esker oinarriak finkatu dira ikuspegiak lerrokatzeko eta Lurralde mailan lan-esparru partekatuak definitzeko, gai jakin batzuen inguruan.

Halaber, lan sistematika bat sortu da eta gunea indartu eta sendotu duten prozesuak jarri dira abian. Zentzu horretan, arrakastarik handiena bezala hau aipatu behar da: Lurraldea laneko esparru komun batez hornitu dela eta esparru horrek ez dituela EAEko beste gune batzuk ordezkatzen; alderantziz, gune horiek osatu eta indartu egiten dituela.

Inplikazio maila eta parte hartzea altuak izan dira, eta lan erritmoa intentsua. Dena dela, kontuan izan behar da intentsitate maila hori agian ezingo dela mantendu. Hasieran posible izan da, motibazioaren eta ilusioaren ondorioz, baina intentsitate hori bere neurrira ekarri behar da, kontuan hartuta lan gune honetako teknikariek konpromisorako eta erantzukizun partekaturako zer aukera eta gaitasun duten lan esparru honetan.



5. AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK

Gipuzkoako berdintasuneko teknikarien sarearen erronka nagusienetako bat da egindako lanak eragina izan dezala berdintasunaren aldeko tokiko politiketan, teknikariek toki mailan duten esku-hartzearen bidez.

Horretarako, beharrezkoa da talde bakoitzean egindako lana Sarera helaraztea, eta baita ere osoko bilkura sendotzea hausnarketarako eta eztabaidarako gune moduan.

Halaber, beharrezkoa egiten da lana modu egokitu eta errealista batean planifikatzea eta dimentsionatzea, berdintasuneko teknikarien benetako aukeretara egokitzeko. Modu horretan bakarrik konprometitu ahal izango dira modu eraginkorrean gune hori mantentzen eta ikasitakoa bakoitzak bere testuinguruan ezartzen.

Zentzu horretan, epe labur eta ertainean erronka garrantzitsuenetako bat da sustatzea bai konpromiso proaktiboa adostutako lan proposamenekin, eta baita ere erantzukizun partekatua, nola tokiko teknikari guztiena hala Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun Zuzendaritzarena, lan proposamen horiek garapenean.

Azkenik, funtsezkoa da lan sistema bat mantentzea, berdintasun alorrean lan teknikoa egiten duten beste gune batzuk ordezkatu eta bikoiztuko ez dituen, baizik eta sendotuko eta osatuko dituen, aukera emanez, gainera, koordinazio eta harmonizazioko garapen eta maila handiagoak lortzeko Gipuzkoako Lurraldean.

2014ko apirila